


BIZKAITARRAI  
BIZKAIERAZ.  
65n. ZENBAKIA  
ORRILLA  
1983



**URRUTIA'TAR GOTZON AITA  
(M. B. S.)  
(1890-1975)**

# ABERRI-EGUNA 1983

## ERRIETAN

«Euzkadi gure Aberria», «Euzkara gure izkuntza» goiburutzat dala ospatu dogu Jeltzaleok aurtengo Aberri-Eguna.

Erri askotan bertako burukideak, erri ortako Jeltzaleen burukideak, antolatutako jai bakunekaz, baiña, bakunak izan arren euzko-oiturazko ospakizun bikaiñakaz, euzkotasunean ondo suztraituta aurkitzen diralako erri-orreitako Jel-burukideak.

Bai-ta izan dira erri batzuk ezertariko jairik antolatu ez-dabenak bere, euzkotasun epelagokoak diralako edo, asmakizun erkiñagoak diralako bear ba'da.

Orixegaitik-edo, gure errian ez genduban beste edozein egunetan baiño garrantzi aundiagoko jairik entzun edo ikusi.

Ori, danok dakigun lez, Berbizkunde-eguna era bitara dogula jai aundia Jeltzaleok; Kisto'ren berbizkundera eta Euzkadi gure Aberria jai bikaiñenakaz goralduteko eguna: Aberri-Eguna.

\* \* \*

## GOIZEAN

Orixegaitik igande orretan lenengo egin genduban lana izan zan, gure txigoan, balkoian, ipiñi euzko Ikurriñ maitia, artu burdia eta Begoña'ko Ama Neskutza'ren aurrean entzun jaupa eder bat.

Bai eder bat bada, naita euzkeraz eta erderaz azaldua izan zan, euzkotasunik beroenaz izan zalako bera, Bizkai'ko Ama Zaindariaren magalean ospatzen diran jaupa edo meza danak; edo euzkerazkoak bakarrik edo euzkaraz eta gazteleraz baiña, euzkotasunez ornidutakoak, izan bear dabelako. Ez dogu uste asko eskatuztea danik.

\* \* \*

## ITZALDIAK

Urren, gaiso abertzalen bat edo beste ikustatu ondoren, Bilbo'ko «Buenos Aires» antzokira zuzendu gintzazan beste aneika abertzalekin batera areto guztia gaiñezka betetako, bertan ospatuko ziran itzaldi aberkoiak entzutearren.

Ez dogu uste bertaratu zan iñori damutuko jakonik, bada, benetan izan ziran entzungarriak beratan izan genduzan iru izlari arein itzaldiak, iñor oinperatu barik baiña egi biribillakaz Aberria goralduta aldezta ebelako.

Guk idatzi al-gein kena baiño askotaz obeto argitalduak izan diralako DEIA egunkari abertzalean, izlari arein itzaldiak, asieran esan dogunez «Euzkadi gure Aberria» ta «Euzkara gure Izkuntza» goiburutzat zala.

\* \* \*

## IZLARIAK

Adin gazteko gizon kementsu batek aurkezpena egin ondoren, lenen Euzko Lage-batzarra'ko lendarakari dan Pujana aberkide jatorrak egin euskun itz Bizakai'ko euzkera garbi oso ulerkorrean.

Urren Euzko Alderdi Jeltzaleak Bilbo'ko Endoretzat aurkeztu daben Robles aberkide kementsuak eta azkenez eta beti lez adoretu eta jakintsu ezagutu nai dabenak ondo ezagutu keiken Arzailluz, Euzko Alderdi Jeltzale'ko lendarakari abertzale azkarrak.

\* \* \*

## EUSKERA

Esan dogunez Puxana jaunak euzkera utsean egin eban eta, beste gauza jakingarri askoren artean esan eban: «Gure artean ez dago iñor gure izkuntza maite ez dauanik, baiña alan da be, egiten ete

dogu gure esku dagon alegin guztia euzkera ikasteko, itz egiteko, gizartean bear dauan maillan ezartzeko?

Abertzaleok; benetan Aberria maite ba'dogu, «eta abar luze bat, dana egi biribillez da kementsu.

Ez dakigu antzoki artan egon gintzazan guztiok itzlariak esan ebanaz bat egongo gintzan, nai-ta ainbat aberkide zintzo bertan ikusi gendun, baiña, tamalez abertzale lez burua erakutsiten daben ainbat, geiegi, ezagutzen doguz egundo Aberria'ren, Euzkadi'ren izkuntza, EUZKERA ikasten alegindu ez diranak, nai-ta aginduten zaleak izan.

Nora ta zetarako sartu ete gein-tekez orretariko euzkotarrak euzkerazale maitaleen artean?

\* \* \*

## GURE ZIÑA

«...Aberri au euskaldun biurtze-ko gaur gaurtik konpromiso (eskintza edo erabagi, esango genduke guk) sendo bat artu bear dogu». Jarraitu eban Puxana adizkide ta aberkide azkarrak.

Eta orretara izan bear leuke gure jokabideak, esaten dogun lez benetako abertzaleak ba'gara, Euzkadi benetan maite ba'dogu, bada, sarritan esan dan lez, ez dago benetako Euzkadi'rik beren izkuntz «EUZKERA» barik.

Orretarako izan bear dau Aberri-Egunak, lortu diran garai-penak —nai-ta gitxi—, ospatu ta aurrerantzean bera aldezta ta ea azkatasun oso bat lortzeko zin sendo bat egiteko, ea laster baten, Aberri-Egun oso benetako bat ospatzen dogun euzkotar guztiok.

ALTUNA'tar Josu

ZER

# UDAL-AUTESKUNDEA

## GARRANTZIA

Gure ZER au bidalgez irakurleen eskuetarantza doala, irarkolatik urten ondoren, ospatuko da Euskalerrian, Egoaldean jakiña, Udal-Auteskunda. Jazokizun ori isillean igaroterik ez genduke gura.

Euskaldunentzat erria, edo udala edo eleiz-atea, beti izan da garrantzi aundiko gauzea. Ori ziurtatzeko naikoa genduke Gernika'n eta beste leku batzutan erakunde orreïn ordezkariak egiten ebezan batzarrak gogoratzea: Gure erri-agintaritzazarraren oiñarria eleiz-ateak edo udalak izan dira.

## GALTZEN

Baiña zori txarrez aspaldiko gizarteak agintaritzaren txuntxurak daukan indarra erpiñean ipiñi dau eta ez oiñarrian, benetako erri-agintaritzak eskatzen dauan lez.

Orrela oiñarrian dagoan sendia eta sendien lenengo alkarteaz dan udala edo eleiz-atea indar barik eta garrantzi barik geratu dira eta Aldundiak, Jaurlaritzaz ta Madrid'eko Gobernua dira txuntxur orren erpiñera bidean indarra ta dirua daukenak.

Eta arpiña artuna ta oiñarria ariña dauzan txuntxurra, jauskorra da. Ez ete da ori gure zoritxar askoren iturriak?

## ALDERDIKERIAK

Oiñarri diran eleiz-ate edo udal orreitan antxiñako gaisoa dau Euskalerriaz alderdikeria: Erdi-Aroan eta geroago oiñaztarrak eta ganboatarrak ziran talde lez udal-batzak euren erara erabilli nai ebezenak, eta gaur errigintza-alderdiak dira antzeko lana egiten dabenak.

Jokabide onek sendien alkartasuna ta erri-jokoa moteldu ta azpiratu egiten dauala esan lei, baiña al-dian aldikoa eta gaur gaurkoa. Jokabide ori barik ez da ikusten gaur urtenbiderik eta ez erdi-aroko taldeak eta ez gaurko alderdi-jokoak ez dautsoe kenduko Euzkadi'ri bere erri-sena.

## UDAL-INDARRA

Gaurko Udal-Batzak zalantza barik, ba-dauke bizitasuna eta eleiz-ateak indartu ta aurrera atera-gurea, naizta noizean bein alderdikeria nagusi izan eta lan ori ezin aurrera atera.

Baiña len esan dogun txuntxur-arazoa argi agiri da: Udal-Batzak bere erri-lana egiteko Aldundira edo Jaurlaritzara joan bear izaten dau diru-billa eta jokabideak bestera izan bear leuke: Aldundiak eta Jaurlaritzak Udal-Batzen eskuetatik artu, urtean onenbesteko bat euren eralketak egiteko. Eta, jakiña, Udal-Batzen artean be alkar-laguntza ta bardintze-kutxea eratu bear ko litzakez eskueladeetan eta Euskalerriz osoan jokabide egokia sortzeko.

## ERRI-MIÑA

Dana dala, gure erriak aurrera aterateko errikiden erri-miña da bearrezkoa, euskaldunak ez daitezela naikotu erri-lana egiten.

Orreterako garrazkeri guztiak baztertzen alegindu bear ko gara, erri-lanari pozbidea emoteko.

Udal-Batz sortu-barriaz eta eurentan diran alkate ta udalkide guztiak lan orretan artu daben ardurea ondo beteteko zoria opa dautsegu.


# URRUTIA'TAR GOTZON AITA

## ERDERAZKO LIBURU BAT

*Erderazko liburu bat aitatzen dogu gaur gure ZER onetan, erderazko liburua bai, baiña euskaduentzat irakatsi eta eredu ederra agertzen dauana.*

*Urkidi'tar Timoteo Klaret'tarrak idatzia da eta bizitzan eta eriotz-ostean isillean edo erdi-isillean izan dogun euskaldun aundi bat ateraten dausku argitara. Aita Urruria, 1890'tik 1975'era bizi izan zana.*

*Kardaberaz'tarren batzarretan eta Euskera-zaintza'n ondo ezaguna dogu Gotzon Urrutia eta lar isillegi joan-ete jakun nago. Ondo dator ba liburu au.*



## LARRIALDIAN

*Aita Gotzon'en bizitzeak gure erriaren kondairabarruan larrialdi luze bat artzen dau: Arana'tar Sabin'en eragiñña erriratu, erriaren bizitasunaren aurka guda mingarria izan eta lengo bizitasunera urratzen ta aurrera jarraitzeko aspaldian diran ekiñaldi barriak.*

*Larrialdi orren barruan larritasunez beterik daukagu euskaldun onen bizitzea. Bere inguruan bizi diran erri-zale askoren bizitzearen antzekoa.*

*Askok eriotzea aurkitu eben; Gotzon'ek eta beste ia 500 abadek, aurrean erabillien eta erbesteratuen bizikera larria.*

## ERRIRA BEGIRA

*Euskalzale askoren jokabidea ta Gotzon'ena onetan dira antzekoak: Errira begiratu, erria otsendu, erriari lagundu, gudaldian batez be, arerioai be lagundu... goikoengandik beti, albokoengandik sarri eta laguntza artu daben arerioengandik geienetan, jazarpena, ulertu-eziña, zigorra, erbestea ta ola-koak.*

*Bere eleiz-taldearen aldetik, Eijo y Garai'gotzainaren aldetik, gauzak iñoz argitu barik, olako era-soak izan ebazan Gotzon'ek. Zartzaroan ikusi al izan eban argitasun apur bat.*

## BIZITZA-UNEAK

*Aita Gotzon'en ondoan beti izan zan erri-zaletasuna eta onen aurkako, zapalkuntza.*

*Ikasketa-aldian bere euskerea erabiltea galazota, eleiz-aginterien aldetik.*

*Gernika'ko Berbaldi ospetsu ta eder biak, euskerearen eskubideak zaintzeko ain egokiro ta ederto egin ebazanean, batez be eleiz-nagusien aldetik.*

*Gudaldian, Agirre Lendakariagandik asi eta azkenengo erritarrari bere laguntza emon eutsonean, lagun ala arerio zan berezitu barik, une larri areri egokion lez.*

*Gorliz'ko ume erbesteratuakaz Frantzia'ra joan zanean.*

*Gero Ingalaterra'ra erbesteratzean.*

*Andaluzia'n egin bearizan eban egotaldi luze ta aspergarrian.*

*Bizitzaren azkenerantza, bear ba'da, pozaldi batzuk: Euskerearen eta ikastolen, ãldeko lanean, bere Eleiz-Taldeak Euskaduentzat Eskualde berezia eratzea lortzeko lanetan...*

*Eta olako lan luze ta garratzetan naikotu barik jarraitu eban Gotzon'ek, bere euskalzaletasuna, bere Eleiz-Taldea eta bere fedea galdu barik, aurrera ta aurrera beti.*

*Eredu dogu ba gure Gotzon auskaldun fededunok.*

OLAZAR'tar MARTIN'ek

# AMOREBIETA'KO ITUNBENA (III)

Lorailla'ren 2'gnean, Karla Erreegea España'ra eldu zan, Madrid'era joango zala uste dogu.

Gure guralburuak arduraz eta jakinguraz zer jazoten zan, España'ko beste alderdian aurkitu ebazan eta apur bat koldartu ta kilkilduiko ziran entzun eutsonean euren guda-iraulketa ezekiela, antza urrut-idazkin edo telegrafu-ek oitasunez ebiltzalako.

Batalloi guztiak Zeberio'ra abiatu ziran eta ango inguruetan ezarri eben danontzat gudaletxea.

Bilbo'ra sartutea izango zala erreza edo ez ain gatxa batzuek eritxen.

Baiña Gudalburu Rada'ren arau-irakaskintzak, Karla'ren baimenaz emonikoak, al-izanez areioari bidera ez urtetekoak ziran.

\* \* \*

Esan dogunez orokor gudaletxea Zeberion' egoala, Lorailla'ren 7'ko batalloi-ak, Arrigorriaga ondoan arerioak ikusita, Gudalburua oartu, eskatu laguntza Bilbo'ko batalloiari, Zaratamo'ko beste aldeko errekean babes'gunea ezarri ta arein su-izkilluen zaparradapean gudaketa egiteko kementsu gertau ziran.

Egon-gunearen giltzadura zalata, ango zubia artu ta zaindu gura eben.

Batalloi guztien artean gura ebena lortu eben alegin aundiaz, indar, ixerdi-larri ta erabagi gogorrez, liberal baltzak eurak irabazten egozala burruka a esan arren.

Gau atantxe poztasun ezin esan aiñakoa artu eben.

Arratia ta Bilbo'ko batalloi indartsuen ausartasuna guztiok osapatu eben, ta danok su-ta-gar gurariz erakusteko lagun arein beste-ko eurak be zirala ziarduen.

\* \* \*

Lenengoz, Karlatar gudari oldezko edo gogozkoak erabilliko

ebezan su-izkilluak egiten; alanbe burrukaldi unea baretsu etxoiten egozan.

Goizeko seirak izango ziran arerioa su-tiroka asi zanean, ta gure aldekoak erantzun eutsoen deadar ta zarata itzelez: «Gora Erlejiñoa, Foruak ta VII Karla Errege».

Alde bietatik, eten baga, ikaragarriz bala-tiroak zearkatzen zirean.

Karlisten su-izkilluak kalte, trizkantza, andiago egiten ebela edo, liberal baltzen zelaian bildurra sartu zan.

arteko gudan irabaziriko ereiño tzak gazte-barristuez.

\* \* \*

Ararioek-baltzak euren laster igesean bost gudu-orni kutxa, aibat su-izkillu, abere bi astundurik, errizaiñ buru-zagiren zaldi-eder-gailluak bertan beera itzi ebezan.

Euren galtzeak bost illak, zazpi zaurituak ta iru atxillotuak ziran.

Karlarenat, ostera, sei zaurituak, oneitariko bi gustiz txarto ta il-zorian.

Baiña ori egia izan leiteke?



*Bernagoitia, Iparraldetik.*

Zaldi bat ariñiketan ikusi zan, ta bere ostean kementsuenak joiazala, zubi beste aldeko ur-bastererra.

Liberalen gudari talde-etan aldartze, zurru-burru, naskera sartu zan eta sakabanatze osoan Bilbo'ko bidea artu ta iges egin eben.

Karlatarren txarangak jo eben Oriamendiko soiñua ta onen gura-ereskidez Arrigorriaga'n sartu ziran zelai berberetan lenengo anai

Nik artu dodazan jakin-gaiak ta argibideak Karlatar edestilarienak dira.

Eta jakiña, edestilariek ez dira izaten beti egitazko ta ziñeskai.

Au bai egia dala dakigu: Arrigorriaga'ko gudaketa karlatarrak irabazi ebela ta liberal-baltzak iges egin Bilbo'ra bildurturik.

# AGUR, ADISKIDE MIN LANDAJUELA

Zure giza-duintasunak idazlari on bat bear leuke zure jaiotza, inguru, lan ta zintzotasuna agertzeko. Munduak nai leuken antza eriozun gizonen artean ta zure lanean.

## ARRATIA'N

Lenengo ta bein, euskal mendi ta ibarren erdian bizitz ontako argia artu zendun.

Lur oneri, ondo, eritxi zeuntzan.

Mendiak ederrak; soloak alaiak, lurra mamintsua ta egizkoa.

Izadiak, alan bearrez, bere izaera, mamin, egi, maitasuna, oparo, eskeiñi eutsuzan Arratiako lurretan. Ta zure begiak, begira begira, jarri ziran ainbeste edertasunen aurrean.

Dana deika zeunkan, lurraren samurtasun guztia opaka seme kutun bateri legez...

## IZADIAN

Lurak zure barrua erri-mindu nai eutsun.

Ortarako, gauzarik onenak ta eztsuenak jarten eutsuzan begien, zentzunen, buruaren ta biotzaren aurrean.

Lurraren bizia zain: euskaldunak, gure baserritarak lantzen zituen mendi, zelai ta solo zabalak begira...

Gure itxaso zabal ta indatsuak, euzko arrantza-leak, pozez, eta nekez, sarri, jorratuak, begira zeunkazan arrain bizia eskeintzen.

## GIZARTEAN

Ta zuk, seme jator legez, euzko gizadiari begiraturik, erritarren egi, izate ta eskubideak ikusi ta onartzen jakin zenduan. Eginbear lenena ta gizontsua zan au zuretzat.

Izatez, berez, emon jatsuzan lur ta ingurua abegi onez artzea, gizon duintasuna zan seme leialarentzat.

Oker-bidez etxea ez zendun saldu. Lurralde txikia zala-ta, bertan bera, ez zenduan itzi.

Millak urteetan zure enda autatuak, bidez ta legez, irabazi eutsuzan buru, biotz, odol, mamin ta azur oro.

## EUSKALERRIAN

Ementxe, alkartu ziran erria ta semea, biak bat izanik benetako kidesunean.

Euzko izadi ta gizadiak emon eutsuezan almen bikain ta egizaleak. Ta geroztik beti, arduratu ziñan ikusten ta ezagutzen biziaren sorrera. Au, egiz, da gizontasun garbia... Aita ta ama saltzeak, izan be, seme baten bururik eza, biotz kaskarraren erdoikeria ta gizon galduaren gaiztakeria, garbi, agertzen ditu.

## IRU ARLO

Gizon zuzen eta leialak guraso ta arbasoen bizia, jakituria, oitura, jatorria, izkuntza, odolez eroanez batera, bere nortasunean, maitasunez, ezarrita daukaz.

Gauza ain baliotsu ta ederrak, al dan giñoan, era onenean, bizi-barritu ta edertu egin nai ditu.

Ortarako, erri sendo ta zintzo baten sena norberak eroan bear dau, arbasoak zer sortu eben ikusi, ta aurrerantzean, etorkizunak zer eskatzen deuskun jakin ta euskaldun seme legez erriaren bizia edatzeko semeen semerako.

Lena ta geroa egiaz alkartzen ditugunean, gurasoen erria ta ondorengo semeena benetakoa ta indartsua izango da.

Oiñarri sendo ta aundietan sustraituta zeunkan zure gizon bizitza: Jaungoikoa, lana, ta euskera.

Iru alor onetan murgildu zan zure gogoa.

Egille barik gizona iñor ez dala, gabeko itzaltasunean izarrak lagez, argi, ikusi zenduan. Ori-gaitik, zure sinismena aberatsa zan. Xure otoia ta urko-lagunarenganako arrera oneko maitasuna Jaungoiko zaletasunaren agiri bikain ta indartsuak ziran.

## LANGILLE

Lana, berezko griña, ukatu eziña zan zure bizitzan. Egunetik egunera, beti, bizia urtzen, otseindu zenduzan sendi ta gizartea. Baiña, zure arimaren arnasa ta garra euzko izkuntzaren bizia, jakituria ta edertasuna izan ziran.

Langille errimea ziñalarik, edonun ta alderdi gutietatik, berez, landu zendun gure izatea, gogoa ta lana berbera, munduan zear, edatuko zituan gure izkuntza: ama euskera.

Gogoan zaitugu, ta Euskalerrriak, iñoiz, ez dauztuko, euzko jakitunen izkuntzaren alde izan zendun lera ta egin zendun lana.

## EUSKAREA

Izkuntza menperatu zendun ta onen bizia ta edertasuna zaintzen alegindu ziñan euskaldun zentzun guztiagaz.

Berbeta guztiak daroe, erri jator batek emon dautsozan jakituria, sena ta edertasuna.

Ta gureak erri erriko erraietarik arturiko izakera ta bitxiak daukaz. Ori-gaitik da jakintsua ta ederra.

Zure alegiña, jakituriz, erriaren berbeta, mintzaira zoragarria aldeztu, landu ta indartzea izan da.

PAULIN

# MOSUGITARREA

*Abauntza'tar Jose Luis abade jaunari adiskidetasunez.*

## LENGOA / ORAINGOA

Oraingo mutikoak, ikustirratia-  
ren musika zaratatsuaz entzume-  
nak dekortuta dabezelako-edo, ez  
dauke ezetariko ereskiñik joten  
ikasteko ez ezetariko eresi-zaleta-  
sunik, arean bere.

Gure mutiko-aldian etzan auke-  
rarik abestiak ikasteko-ta, eta en-  
tzumenak zoli ibilli oi genduzan  
geure gogoko kanta edo eresien  
bat entzuteko erea izaten gendua-  
nean.

Nozbait, jaien baten urita joa-  
ten gintzazanean, orduan ibilli oi  
zirean gitarra-jotzaileen batzuk  
ikusten ba-genduzan ikusi, atsald-  
derik erdia egiten genduan ala-  
koen kanta entzuten, gogoko eki-  
gun musikadun kantarik abesten  
ba-eben, beintzat, eresia buruz  
ikasiarte, kanta-papela erosi, ta  
gero berbak ikasteko.

Gitarradun areik erdeldunak  
izaten ziran izan be, ta, zoritxa-  
rrez, erderaz izaten ziran arein  
kanta guztiak.

Guk, geuk, orduan, maixu er-  
deldunek eskolan makillakadaka  
ikasi-azotako erdera apurra baiño  
ez genkian eta pozagorik ikasi  
gengikezan euskel-abestiak, baiña,  
orduan, etzan olango aukerarik  
izaten.

## ERES-GAILLUEN BILLA

Guk orduan aditu ezarren  
(orain konturatzen naz) nabar-  
menkeritxuak be izaten ebezan  
abesti ganorabagako areik eta,  
berbakaitik bagarik, musikearren  
gogoko ekiguzan erdel-kanta areik  
abesten entzuten euskunean, age-  
rika egiten euskun amak.

Erdera gitxi be-gitxi jakiñarren  
ba-ekian, ba, gure amak, erdel-  
abesti areik ekandu onai indarra  
emoten etorten etzirana gure arte-  
ra.

Musika-zaletasun aundia ne-  
ban, ba, nik, neuk, eta begi argia  
jartzen neutsen erestaillueri bere.

Nok leukaken mosugitarrea edo  
txilibitua, joten ikasteko!

Baiña gure gurasoak be, aldi  
atako geienen antzean, bete-be-  
tean ibilli oi ziran euren bearriza-  
neri arpegia emoteko eta ez eben  
diru enpaidurik (sobrarik) izaten  
guri ezgauzarik ez naikeririk eros-  
teko.

## DIRURIK EZ

Mezuen bat egiten amak Gerni-  
ka'ra bialtzen nenduan bakoit-  
tzean, egotaldixua egiten neban  
Burgomasua'nekoa eritxoen  
burdinki-dendako erakustokian  
egoan musugitarreari begira: Txi-  
lintxu bi ebazan mosugitarra doto-  
rea zan eta pozik erosi negikean,  
baiña...

Bein, arexeri, musugitarra are-  
xeri adi nengoala, albo-errien ba-  
teko beste neure adiñeko mutiko  
bat aldameratu yatan eta,  
«agoaz joteko soiñua daukat, nik,  
aitaitak ekarrita» esan eustan.

Nik, neuk, ez neban, baiña, ai-  
tatarik.

Amargarrena ta azkena nintzan  
(naz) neba-arreben artean eta be-  
randutxu eldu izan nintzan, ba,  
mundu onetara, eta ni jaio baiño  
len alde eben, bizien mundutik,  
nire gurasoen gurasoak.

Ez neban, ba, aitatarik ez ama-  
marik, ez sarri gogoz begiratzen  
neutsan mosugitarra polita eroste-  
ko dirurik bere.

## TXILIBITUA

Mosugitarra ederra izan neban,  
urte batzuk geroago, neure anaia  
zarrenak San Antonio batzuetan  
Urkiola'n erositu.

Bereala ikasi izan neban joten  
eta pozarren nenbillan neure soi-  
ñutxu maitagarri areaz.

Gerotxuago, beko muxturean  
eta erdian berekizko erestuntxu  
baltzak eukazan sei zulodun *na-  
karrezko* txilibitu zuria erosi ne-  
ban, bederatzi txakur eta erdigai-  
tik.

Zarata polita eukan, euki be, ta  
beingoan ikasi izan neban a joten  
be.

Ba-nekian, ba, ereskin bi joten  
eta pozik nenbillan etxe-inguruko  
baso ta landetan, Izadiaren bakar-  
tasun baketsuan, neure mosugita-  
rrearen eresi bigun eta txilibitu-  
soiñu samurrak, goiz-illuntzetan,  
aizeratzen. Nor ni baizen zorion-  
tsurik!

## GEIAGO GURA

Arrabitearen (biboliñaren) soi-  
ñua zauritzen eustazan, baiña,  
neure gogo minberearen aririk  
mengalenak; baiña ba-nekian es-  
kuratu eziñeko «tresnea» zana, ni-  
retzat, eta amesik bere ez areaz ja-  
betzeko.

Musika apur bat bere irakatzu  
eustien, txikitan, elizan kantetako,  
eta txistua ta ttunttuna joten be  
ikasi neban, geroago, ta ezpata-  
dantzari taldea be sortu genduan,  
errian.

Gudateko gora-beera, ezbear  
eta atsekabe guztiakaitik be, ez  
neban galdu izan musika-zaletasu-  
na eta Larriñaga'ko baitegi zata-  
rrean birrikasi egin neban, musi-  
kea, lagun on bateri esker.

## MOSUGITARRATXUA NON?

Eresia, musikea da oraintxe  
bere nire, neure, zaletasunik gure-  
nena eta pianu-atzoldun (tekladu-  
n) auspo-soiñua (pillarmonikea) ta  
txilibitua (plautea) joten dodaz,  
asti-aldietan, gogoko zaletasunak  
azazketako ta baru-tamaltasunak  
arintzeko.

AURRE-APRAIZ'tar  
BALENDIN

# AITA URRABURU, FILOSOFOA

Arratia aranean, Zeanuri errian filosofo jakintsu onek, bere izeneko enparantza bat dauka.

Joan Jose Urraburu Zeanuri'ko Zututze baserrian jaio zan, 1,844'garren urtean, lora-illaren 24'an.

Bere filosofi-jakinduria «Institutiones philosophiae» izeneko 8 liburu lodietan idatzita itzi euskun.

Urraburu'ri buruz A. Madariaga'k au autortzen dau: «Nik esan neike, geiegikeri andi barik, Aita Urraburu'ren filosofi-liburuak, 19'garren gizaldian idaztzitako onenatarikoak dirala».

## NOR ZAN

Txikitari erriko eskolara joan zan. An ikasi eban erdera apur bat, baita irakurtzen eta idazten be.

10 urtegaraz Arrazua'ra joan zan ango abade baten ardurapean latinan leenengo urratsak emotera.

12 urtegaraz Gasteiz'ko abademintegian —seminarioan— dago, erretorika ikasten.

16 urte zituela, Loiola'n, Jesusen Lagundian emon eban izena.

Iñigo Deunaren etxe ondoan iru urte emon ebazan: bi nobizio legez, eta irugarrena erretorika ikasten...

Emen ikasi eban bere liburuetakoko «latin argi, erreza eta dotorea» Delmas'ek esaten deuskunez.

## GOI-MAILAKO IKASKE-TAK

Iru urte Leon'en egin ondoren filosofia ikasteko, barriz Loiola'ra dator, beste iru urtetan Jesusen lagundiko gazteai latin eta erretorika irakastera.

1.868 urteko España'ko matxinadak Jesus'en lagundikoak erbeste bialdu ebazan, eta Urraburu ere Frantzia'ko Saint Acheul erri-  
ra joan bearrean aurkitu zan, beste lagunekin batera.

Andik Inlaterra'ra teologia ikastera, baiña ixilpean eta bere burua ondo gordeta, Kastilla'ra sartu zan, Salamanka'n teologiako ikasketak amaitzera.

Emen emon eban bere Meza Barria 1.874'garren urtean 30 urte zituela.

Bere ikastaldiak amaitu ondoren Frantzia'ko Poyya Poyanne erri-  
ra joan zan teologia irakastera. Landes'eko erri aretan bizi ziran orduan Jesusen lagundiko ikasle gazteak.

## IRAKASLE

Urte bi egin ebazan Poyanne'n teologia eta moral irakasten. Laster ezagutu eban Urraburu irakasle argia eta sakona zala, eta Erroma'ko «Gregoriana» izen andiko ikastetxerako aukeratu eban, an «filosofia barria» irakasteko.

Unibertsitate ospetsu aretan «eskolastika barria» irakatsi eban, ospe andiz, eta bere biotz onez ikasleen biotzak irabaziz.

Jose Espí, kritikari frantsezak au diño Urraburu'ri buruz: «Aita Urraburu'ren filosofia 'eskolastika barri' arloan aurrenetarikoan ar-  
tean nik jarriko neuke, eta leenengo dala ere autortuko neuke».

Carlos Delmas'ek ere onen antzera autortzen dau:

«Aita Urraburu jakintsuak Erroma'n argi egiten dau, beste jakintsu askoren artean, betiko filosofia indartuz, aberastuz eta erabarrituz.»

## URRABURU IDAZLE

Erroma'tik Valladolid'era erre-  
tore izateko etorri zanean, Gregoriana'ko ikastetxe nagusian irakatsitako ikaskizunak argitaratzen asi zan, berak esaten dauanez «nire lagunak eskatuta, Erroma'n agoz irakatsi nebana, orain liburu-  
ruean zabaldu daiten».

«Logica» 1891'garren urtean argitara atera eban, eta urrengo urtean «Ontologia».

Valladolid'tik Oña'ra etorri zan 1892 urtean, emengo ikastetxe nagusian filosofo eta teologoen nagusi izateko.

Burgos'ko erri onetan prestatu ebazan argitaratzeko:

«Cosmologia» 1892'garren urtean eta «Psicologia» iru tomatan. Oña'ko erretoretza amaitu ebanean Burgos'ko nagusi izentatu eban, eta emen amaitu ebazan bere azkenengo tomo bi ederrenak: «Teodicea».

Ordurako biotzeko geixoak jota egoan, eta Kastillako ikastetxe onetan emon eban bere azken arnasa 1904 urtean, Dagonillaren 11'garren egunean.

## GIZON ETA JAUNGOIKO-ZALE

Aita Urraburu ezagutu ebanek esaten deuskue iru izan zirala bere birtuterik andienak: Jainko-zaletasuna, lan-zaletasuna eta biotz-gozotasuna.

«Berarekin artu-emonetan asten ziran guztiak, bereala egiten ziran adiskide» «Beti egoten zan edozei-  
ñeri laguntzeko prest» bere lagunek diño. Eta berberak autortzen dau: «Ni filosofia ikasten asi nintzanean filosofo eskolastikoak ez ziran ezagunak... baiña egunero lan egiñaz asi nintzan euren pentsakera ikasten eta neureganatzen».

Beste kritikari batek diño: «Urraburu'k filosofi lurrean, ez eban bide barririk urratu, baiña bai az-  
tuta eta arriz beteta egozan eskolastikako bideak garbitu, zabaldu edozein filosofi-zale oiñezkoentzat egokitu».

GOIKOETXEA'tar Iñaki. S.J.



# ESKU-IDAZKIAK

## IX GORAPEN-ABESTIA

<sup>5</sup>Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,  
erbestaldian erri arrotzaren artean nengoala  
bertan-beera itzi ez nenduzulako;  
nire erruen negurrira epaitu ez nozulako,

<sup>6</sup>nire biotzeko asmo gaiztoen eskuetan be  
bertan-beera itzi ez nenduzulako.  
Illobitik atararik jaso zenduan nire bizia.

<sup>7</sup>Erru-semeai izentatuta egozan leoien erdian itzi  
izan nenduzun bertan-beera,  
aaltsuen azurrak zatitu ta indartsuen odola edaten  
daben leoien erdian.

Erbestaldian bertan-beera itzi nenduzun,

<sup>8</sup>itsas-gaiñean sareak zabaltzen dabezan  
arrantzale-taldearen artean.  
Gaiztakeriaren semeak billatzen dabezan eiztarien  
artean.

Estura ikaragarri aretan, zeure jakintzaz beraz izan  
nintzan irakatsia.

<sup>9</sup>Nire biotzean egiaren ezkutua sendotu zenduan.  
Auxe da itunpena billatzen dabenen itunpen-iturria.  
Zeuk itzi zenduan leoikumeen agoa;

<sup>10</sup>arein agiñak ezpatea lez dira,  
arein betagiñak lantza zorrotza lez.  
Arein egitamu guztiak suge-edena dira,  
arein asmo guztiak odola miazkatzera joten dabe.  
Orregaitik, zelatan diardue.

<sup>11</sup>Baiña ezin jaurti izan dabez nire aurka euren  
aginkadak,  
Zuk, ene Jaungoiko orrek, gizonen begietatik gorde  
izan nenduzun-eta,  
zure legea izentatutako aldirarte zaintzeko.

<sup>12</sup>Orduan zeure salbamena agertu zeustan.  
Ez nenduzun estutasunean bertan-beera itzi.  
Entzun egin zenduan nire laguntza-deadarra.

<sup>13</sup>Antzika nengoala, entzun egin zenduan nire  
bear-izanaren berbotsa.  
Atara egin zenduan beartsuaren arimea  
leoien kobako larrialdian,  
euren agiñak ezpatea lez zorrotzen dabezan leoia-  
kandik.

<sup>14</sup>Baiña Zuk, ene Jaungoiko orrek, arein agiñak  
lotu egin zenduzan,  
apalaren eta beartsuaren arimea urratu aal ez egien.  
Zorroan sartu zenduan arein miiña, <sup>15</sup>ezpatea beron-  
nen zorroan lez,  
zure morroietariko bat bera be zauritu aal ez egien.  
Zeure aal-izatea erakutsi zenduan Adan'en semeen  
aurrean;  
miragarriak egin zenduzan <sup>16</sup>beartsuarentzat.  
Su-katilluan isuri zenduan,  
sutan garbitzeko,  
ertilariak putz egiten dautsoen laban  
zidarra bikaintzen dan antzera  
zazpi aldiz garbiturik.

<sup>17</sup>Erriko dongak artegatu egiten ziran,  
nire aurka oiñazeak aldarrikatzen;  
atsekabetuta egoan egun guztian nire arimea.

<sup>18</sup>Baiña Zuk, ene Jaungoiko orrek,  
aizebaltza aizekirri arin biurtu zenduan.

<sup>19</sup>Artzaiñak arrapakiña leoien agotik ataraten  
dauanez  
askatu dozu beartsuaren arimea.

# JUAN ANTONIO ABOITITZ (1751-1824)

## GIZASEME

Uri ederra dozu Lekeitio. Etzara iñoiz egon bertan? An bizi diranak eta kanpotik ara joanak, ao batez autortzen dabe, itxas-aldeko errietarik ederrenetarikoa dala. Kantauri ertzean daukazu, mendi, ugar-te, ondartza ta bidez txairo apaindua. Etxeak zuri ta gorri, kaleak luze ta medar, iñoiz ez ixillik; alai kaia, ontzi koloretsuz argi ta ponpox; aize-tokiak zabal ta atsegin, Tala ta ingurumari dotoreak, kresal osasuntsuz biriki-auspoei deiez. Eliz aundi ikusgarria kanpotik, eta Euskalerriko ederrenetarikoa barrutik.

Izpazter au ezta agorra izan euskal literaturari begira. Eta auxe da gure arloa. Ortxe munduratuak doguz Azkue aita-semeak, biak euskal idazle jator; ortxe jaioa Eusebio Erkiaga, olerkari bikaiña. Ez noa, alan be, oneik goratuz aizatzer. Besterik da nik asmo dodana. Onein artean eta oneik baiño lenagokoa dogu beste lekeitiar olerkari bat, oraintsu arte euskal literaturan bibliografi asko sortu bakoa, erdi ezezaguna, baiña bere euskeragaitik ikerlarientzat interesgarri leitekena.

Idazle au, izan be, garrantzi aundikoa da Bizkai-ko euskal idazleen artean, idatzizko eusko-pizkundearen aurretikoa dogulako. Lekeitio'n jaio zan. J. A. Aboititz, 1751'ko jorraillaren 3'an, goizeko ordu bi t'erdietatik iruretara, eta egun berean ango txauburu Domingo Xabier Gamarra'k bateatu eban, Juan Antonio Agustin izena ezarriz. Juan Aboititz eta Ursola Azterrika gurasoen legezko se-

mea zan. Aitaren aldeko aitita-amamak, Juan Aboititz eta Domeka Zarankondegi; eta amaren aldekoak, Antonio Azterrika ta Katalina Uskola; Juan Aranburu ta Maria Axpe'k egin eben aita-bitxi ama-bitxi. Gurasoak, Lekeitio'ko Andra Mari elizan ezkondu ziran 1747'ko jorraillaren 4'an, testigu izanik Nikolas Zatika, Santiago Uskola eta beste batzuk. Ursola Azterrika Izpazter'koa zan alabaz.

1754'an artu eban Sendotza deritxon sakramentua, ireillaren 30'an. Il barriz, parroko liburuetan datorrenez, 1824'ko urrillaren 2'an egin zan, Elizakoak artu ta Zamora idazkariaren aurrean testamentua osotu ondoren. 73 urtean ainbat lan egiñiko apaiz umore onekoa. Bateatzerakoan. Juan Antonio Agustin izena ipiñi eutsoen eta illen liburuan Juan Antonio Aboititz bakarrik agertzen da. Azkue'k diñoanez, ez ei dakigu umore oneko gizaseme oni zergaitik deitu eutsoen biziten asi zanean J. A. Agustin eta mundu onetatik urtekeran Juan Antonio bakarrik. Irri-gertaera ete?

## OLERKARI

Lekeitio ez da leku ez-egokia bertsolari naiz poeta, izatez zerbait esnari, oler-mintza arrotzeko. Aboititz gure apaiz bertan urte askoz bizi izanak, orrela erakutsi euskun. Itxas-ondokoak geienez alai ta zaratatsuak izan oi dira: or ondarruar eta lekeitiarrak,

Bermeo'ri ezertxo kendu barik, arrantzu-lanak amaitutakoan, Andra Mari, San Antolin naiz Santa Eufemi-jaietan...

Itxas-ertzean jaio ta lumaz trebe diran euskal idazleak be, naiko ixurkoi izan oi dira euskaldunak berezko dauan doai orretan, au da, umore onean. Begira gorago aitatuteko Azkue aita-semeak, Erkiaga eta orain alda-maldeka derabilgun Aboitiz abadea. Orrez gaiñ, zer-edo-zer bada, leengo gizaldietakoak batez be, minkaitz baiño umore ta gogo oneko izaten zaleago dituzu. Bakarte illuna ez jaku eder.

Aboitiz, euskaldun jator lez, umore ederreko agertzen jeku itxi euskuzan olerki-lanetan. Munduko literatura guztiak daukiez olakoak, umore oneko idazleak, euren barrua goza-giroz dabenak. Edo-ta zerbait barregarri ipiñi nai izan danean, jokabide ortatik ibilli direnak. Antxiña ezagutu eben greziararak, eta Erroma'n Horazio, Marzial eta Juvenal latindarrak txibitaren astiña aderto erakutsi eben euren olerkietan; eta Boccacio'k Italia'n, eta Molière, Voltaire eta oraintsuago Anatole France'k Frantzia'n; Swift, Defoe, Dickens eta Bernard Shaw'ek Ingalaterra'n, eta Hita, Quevedo, Iriarte, Valle-Inclan eta beste batzuk Espaiña'n...

Gure literatura, zoritxarpean bizi izana bait dugu, Etxahun'ek baleiteke betaz egoanean bere arroldiakaz edertua izatea. Era ortakoak doguz arek biribildutako olerki ederrok, «Ofizialaneka», «Gaztalondoko neskatilak», «Bi ama alhaba», Maria Solt eta Kastero», «Barkoxeko eliza», «Mendiko herria» eta besteak. Eta zer da erderaz *satira* esaten jakon bertso-klase ori? Idazti bat, naiz itz lauz eta naiz bertsoz egiña, erriko oitutak eta ekanduak, jan eta edanak, jazkerak naiz modak, politikuak, diruzaleak, aginte-billa jo ara ta jo ona dabiltzanak, jorratu ta gaitzesten erabilli oi ditugun bertsoak; literatur-mota legez, munduko idazleen artean leen eta orain sarri atz-egin jaken ziri-lanak, gizonezko naiz andrazkoen auleri ta jausi-aldiak txibitatzeko geienbat erabillitakoak.

Irri ta barre bertso-gilleak aparteko giroa dabe eurekan. Gauzak eta giza egitadak ikusi ta jasoteko zorrotzasuna, umore onaz naste, sortu oi dabe giro ori. Talde ontakoa genduan Aboitiz. Apaizak oi dabebez, sarri egiten eban bere ibiltaldia nasa zear, Arranegi, Narea kale zear, bazkal aurretuan eta illun-nabarrean, beti begi-luze ta oarle, beti olerki-gaitxoren baten billa. Lekeitio'ko kale-bazterretan, ez dakigu noiztik, baiña ugari samar daukaguz, leen eta orain, ardangelak eta txiribogiñak. Orreitatik ibilli oi zan, jakiña, Aboitiz abadea, aregaz eta onegaz autualdi luzeak egiñez. Ba-ekian, beraz, zelako piztia zan, Peru Dubako, esate baterako, an-emen napar baltza edanaz, erdi-mozkor, txerbel, apaizari egunero ateraldi ez-leunak botaten eutsozana. Baita ezagun eban Txanton Pipirri be, iñoren bizkar bizi zana; baita

ezagutzen urliak apaizak, bere sasoikoak, etxean eukan «Matxango» tximinoa be; ezagun ebazan neskazarrak, arrainsaltzaille barritsu, miin-zorrotzak... Aboitiz olerkariak, oneik goztiok igurzi ta leusinduz, benetako poza artu oi eban.

Eta bertso errezez onako ziri-lanik naikoa ondu zituan, antza danez, naizta gaur eurotatik asko jakin ez nun diranik. Azkue zanak, bere Morfologia Vasca-n, oneik aitatzen dauskuz: «Peru Dubako», «Txanton Pipirri», «Matxango», «Mendi altu orretan», «Zeugana nator, Pedrotxu», «Ezaguna naiz neu, Velasquillo», «Trakamailgo Erregiña». Azkue berberak diñoanez, lengo gizaldiaren erdirantza prailleak komentuetatik bota ebeanean, Aita Jose Antonio Uriarte, frantziskotarra, euskal idazle ugaria, Lekeitio'n bizi izan zan urte batzuetan; arek osotu eban Aboitiz'en eta beste batzuen idatzietatik bertso bilduma bat, eta Azkue'k bere aldetik, lan ortatik aldatu zituan batzuk.

Ona zer-jan billa kalerik ebillan Txantxon giza-joari jarritako zazpi estrofadun olerkitxotik iru aapaldi:

*Txanton Pipirri emen dago,  
limosna on ba'lego,  
Kanta bear dot, baldin al ba'dot,  
neure sabelean gosea,  
erruki dedin-jentea.*

Egun baten apostua egin eben iru laguneren artean, Izpazter'en jango ebela goizetik gabera amar erraldekoko txala. Txanton'ek, itxaropentsu, onela diño:

*Pozez nengoan zoraturik  
jateko lauren bat osorik.  
Neure kontuak beti alanguak;  
joan da poza potzura,  
amesak diran modura.*

Goseti onek guztiz zabala dau sabela, bardin gibela, este bakotxak artuko leuke ganbela bete okela. Ezta errotan arririk, bere agiñak langorik; baiña okela gitxi beratzat, eta besigua janez naikoatu bear. Besigu-jataldi ederrak, bai. Ona berak:

*Lekeitio'ko kalean  
besigu-denpora danean,  
ogei txitxarro ta geiago,  
eta guztiak gauean,  
sartu dodaz sabelean.*

Erdi-Arotik asi ta ba-zan gure artean, eta beste errialdeetan, norbait ilten zanean negar-illeta egiteko oitura. Elantxobeko erostariak, entzute zabala eben Arein uarka be biribildu zituan bertsoak. «Elantxobeko atso illetariak» deritxon lanean, guztiz umoretsu agertzen jaku. Bizkaiko Foruak, bere 35'garren ataleko 6'garren legean datorrenez, galazo egin olako ulu ta negarrak, «kaltegarri ta galgarri ziralako».

Egoki litzateke Aboitiz'en olerki guztiak batu ta txorta txiki batean argitaratzea.

AITA ONAINDIA

## DIMA-KO LOREA

Laster entzungo dira lurbira guztian, baña batez ere Euzkadi-n, kanpai-iraulketa alaiak. Zergaitik Jon Paul Igarrenak *Zoriondunen eta Santuen* maillan, gure aberriko abade-lekaide gazte bat jarriko daualako. Bere izena: *Aita Domingo Iturrate eta Zuberu, Irukoiztarra*.

Zerura joan zan ill onetan —1927'ko jorraiaren 7garrean, Belmonte-n, Cuenca-n, baña Bizkai'ko Dima-n, jaio izan zan 1901'ko maiatzan, 12garrean. Orregaitik, bena-benetan bera, ize-nez eta izanaz, DIMA-KO LOREA da.

\* \* \*

Bere bizitza lurbira onetan sano laburra izan zan —26 urte bakarrik—; baña argitsua baño argitsuago.

Gure Domingo-n oso osoan bete ziran *Jakituria*, Liburu deunan irakurtzen doguzan itz politik: «Zintzoak, gazterik il ba-dadi be, atsedena aurkituko dau. Jaungoikoari gogoko egin yakon, eta Jauagoikoak maite izan eban; pekatarien artean bizi izan zan, eta Jauagoikoak Beragana eroan eban; gaiztakeriak adimena okertu ta maltzurkeriak arimea lilluratu ez egion eroan eban Beragana...

Bikaintasuna laster lorturik, aldi luzea bete eban; aren arimea Jaungoikoari gogoko yakon ezkeru, gaiztekeritik laster urteteko aalegiñak egin ebazan».

Bere illobiko kutxan, ondo baño obeto idatzi zan esakera au: *Dana egin eban ondo*.

\* \* \*

Abade-lakaide meza-barridun au gazte-gazte il zan, gauza aundiak egiteko; bada ori bai, gauza

txikiak eta egunerokoak izan arren, *dana egin eban ondo*. Eta auxe da, bai Jaungoikoaren, bai gizon-emakumen aurrean, egiterik aundiena: *dana ondo egitea*.

Orregaitik, asko ta asko gara, bere miresle ta goresleak, lurbira osoan zabaldua gagozanok.

Bere umezaroan ekandu onen eredu ta lagunen jarraibide izanda gero, amairu urtegaz, Algorta-n, Irukoiztarren artean sartu zan.

Bere zin-eskaiñak egin ondoren, ikasketa nagusiak egiteko, Erroma-ra bialdu: aben.

Eta an, nai etxean, nai etxetik ataz, Kristo-ren usaia gozoa sabbaltzen eban. Are geiago: norbere biotza egite onetara zaletuteko, bakarrik bera begiratzea, nikoa zan.

Beti Jainko-zale gartseua zala erakutsi eban. Jaungoikearen Amarentzat semebiotza izan eban beti, ta ez eukan neurrik Irutasun Deuna gurtzeko. Aldareko Eukaristi miragarriaren zaletasuna be agiri-agirian ikusten jakon.

Alango baten, 1925-ko Dagon millaren 9'garrean lortu eban, berak ain gartsu nai izan ebana: *Kristoren abade izatea*. Aste bi barru, il zan Santu-zena ta Santu-usaiña itxirik.

\* \* \*

Idazlari bat baño dira, gaiago Domingo-ren bizitza azaldu ta go-retsi dabenak. Orra or egilleen eta idaz-lanen izenak. Idaz-lan batzuk euzkeraz, eta beste batzuk erderaz idatzita.

— *Vida angelical del Siervo de Dios, P. Fr. Domingo del Santísimo Sacramento*: Fr. Antonio de la Asuncion-ek egiña, 1928'garrean.

— *Sakramentu Deuna'rea Domingo Aba*: Gorostiaga'tar Eulogiok idatzita, 1929'garrean.

— *El Lirio Eucarístico de Dima*: Timoteo de Urkiri-k antolatua, 1944'garrean.

— *Reto juvenil a la muerte*: Pedro de Anasagasti-k gertatua, 1959'garrean.

— *Heroísmo al día. P. Domingo, Trinitario*: Fr. Angel de Santa Teresa-k argitaratua, 1964'garrean.

— *Sakramentu txit Deunaren Aita Domingo Agurgarria*: Pdoro Anasagasti-k gertua, 1980'garrean.

\* \* \*

Gure Domingo, Dima-ko Loreak, ba dau, 1935-tik ona bere ereserkia, Iruarrizaga-tar Jon-ek egiña; 1936-1939-ko guda ostean galdu zana, eta Urkiri-tar Timotak, ereserkiaren ardurearen ardurez aurkitu eban, itz barik. Onegaitik berak itz berri bat sartu dautsa.

Ereserki ori, doiñu aldetik errez eta gozagari da; eta itzez erreza baita bete-betea ere. Emen dago Domingo-ren biotz-barne osoa dirdaitua.

\* *Agur, gure Domingo / Dima-ko lorea. / ERAKUSGUZU DANOI / ZERUKO BIDEA.*

\* *Jainko Irukoitzaren / agurtzalea. / ERAKUSGIZI...*

\* *Eukaristi deumaren / txit maitatzaillea. / ERAKUSGUZU...*

\* *Gurutzeko Jaunaren / gogoz jarraillea. / ERAKUSGUZU...*

\* *Jainko ta gure Amaren / seme maitalea. / ERAKUSGUZU...*

\* *Alkar-maitasunaren / eraikitzailea. / ERAKUSGUZU...*

\* *Mixio-errientzat / Zu laguntzailea. / ERAKUSGUZU...*

\* *Zu kristau gazteentzat / argi emoillean. / ERAKUSGUZU...*

URKIRI-tar Timotak, CMF.

Euskalerritik Mundura Begira

# AFGANISTAN

## BURUZBIDEA

Kortzega'ko arazoetaz mintzatu gintzazanean bi atalauek ezarri nebazna: Erri guztiek dabela «auto-determinazio» edo beren «buruzbiderako» eskubidea. Eskubide ori zentzuzko jende guztiek onartzen dabela gaur-egunean; baita komunistek ere.

Erri bakoitzak bere buruarekin zer egin erabaki aal izateko eskubide ori, ordea, ez dogu komunistek eta guk berdin ulertzen.

## LURRALDE URRUNA

Kortzega bezelaxe, eskubide orren billa borrokan dabil Afganistan ere. Afganistan; lurralde urruna, an, India eta Errusi'ko Siberia'ren artean, hudi-ko alderik goikoenean, Imalaya-Mendien auzoan dagoan erri ez ezaguna.

Neurritz zabala; 600 milla t'erdi kilometro lauki badauzana; baiña biztanle urrikoa, 16 milloi besterik ez bai dira bertan bizi diranak; eta maometarrak danak.

Indarra-bidez komunistek jaurlaritzaren jabe egin ziran Afganista'en, eta bein jaurlaritzara igo ondorean, Errusi'ren laguntza eskatu eben, komunismurik gura ez eban erria zanpatzeko. Eta, Errusi'k bereala sartu bait eban Afganistan'en bere gudaroztea, errusiarren aurka borrokan dabiltz an abertzaleak aberriaren eta erlijioaren askatasun-alde.

## ZER DA BURUZBIDEA?

Baiña... komunistek erri guztien buruzbide edo autodeterminazioaren babesle ba'dira, zergaitik ez dautse Errusi'k afganistandarrei beren buruzbiderako eskubiderik ematen?

A! Komunisten buruzbidea eta gurea berdiñak ez diralako.

Guretzat, erri baten buruzbiderako eskubidea, erri orrek bere burua Laterri Yare, edo «independiente» egin nai daun edo ez erabakitzeko eskubidea da.

Ez ordea komunistentzat. KOMUNISTENTZAT, AUTODETERMINAZIO EDO BURUZBIDE KOMUNISMORAKO BIDEA besterik ez da.

## ABERRIRIK EZ

Euskaldunak: ez eizue au aztu, eusko-komunistezkertiarrei autodeterminazioaren eskea entzuten dautsezuenean.

Eusko-komunismuak bi buru dauz: EE eta HB. Eta buru bikoitzeko pizti ori, bere bi agoen bidez «Sozialismua»!, «Autodeterminazioa»! deika ari yaku aspaldi ontan.

Buruzbidearako eskubidea, Lenin'ek sartu eutsan komunismuari. Marx'ek eta Engels'ek ez eben ortan pentsatu ere. Aientzat abertzaletasuna, burgeskeria besterik ez zan. Komunismua, abertzaletasun ori ezereztera zetorren.

Lenin'ek ordea, ikusi bait eban Errusi'ko Tsar izeneko agintarien azpian zeuden erriak askatasunzaleak zirala, askatasunerako eskubidea, au da, buruzbidea edo autodeterminazioa, eskeñi eutsen danei, Errusi'n komunismua ezartzeko laguntzaren truke. «Lagundu eidazue komunismua ipintzen, eta askatasuna emango dautsuet nik, gura ba'dozue».

Orduan idatzi eban Lenin'ek: gaur ez daike ezer egin abertzaletasuna edo nazionalismua ontzat artzen ez daun alderdi komunistak.

Ez da irultza egiteko gauza izango.

Ez da komunismora iritxiko.

## GUDAROSZTE GORRIA

Etorri zan Errusi'ra komunismua. Georgi'k, laterri yare egin eban bere burua. Eta baita Ukrani'k, eta Poloni'k Finlandi'k eta Baltik Itsasoko errialdeek ere.

Tiroka eta indarrez, Gudarozte Gorri Komunista bitarte zala, kendu eutsen askatasuna Lenin'ek Ukranitarrei eta georgiarrei.

Menderatu nai izan ebazan beste errialde aiek ere, baiña Frantzi'ren laguntzarekin, borrokatu eta garaitu bait eben poloniarrek Gudarozte Gorria, errialde aien askatasuna onartu-bearrean arkitu zan Lenin.

Bere itzari uko egin eutsala Lenin'ek?

## LENIN'EN JOKOA

Ez. Buruzbidea eskeñi eutsen Lenin'ek. Baiña Lenin'entzat buruzbidea, komunismorako bidea besterik ez zan.

Iritxi ziran errialde aiek komunismora. Bein komunismora iritxi ondorean buruzbidea eskatzeko arrazoirik ez eben.

LATIEGI'tar BIXENTE

# GAURKO IRUDIMENA

## MAMARROA

Ludi ontako azken-gudan, esaten dabena lez, alemanai, euren baratzetan, lursagar landararen aurkako mamarroak jaurti eutsezan arerioak.

Dana dala, gaurko egunetan ikusten gagoz, mamarro ori, oso zailla dala trixkatzea ta, lursagar ona gura ba'da aurkitu, nekazari guztiak alkaturik, danak batera egin bear dabela euren garbiketa, auzotik ez daiten etorri norberen solora ondamentirik.

\* \* \*

## ALDAKUNTZA?

Guri ere antzerako zerbait etorri jaku gure guda madarikatu onegaitik.

Berrogei urteko illuneak, ziztrinkerizko «mamarru»ak sartu dauz gure errian.

«Mamarru» oneik, gure erriaren izakera aldatu nairik dabiltz, goizetik gabera agerturik ainbat «jakintsu»gu, lengo oldozmendunok, barregarritzat ipiñiaz.

Gu, lengoak, atzerakoiak ei gara, guk, ez ei dakigu besterik, eleizaratu ta iñuskeriak egiten.

Ezkertarrak izan bear ei gara gizontasunik euki nai ba'dogu.

\* \* \*

## GUDA-ONDORENA

Onen gañera, euskal izkuntzaren oñordekoak garelakoan egon arren, ez ei dakigu guk euskerarik.

Euskeraz ez ba'dakigu, zelan jakingo dogu ba idazten?

Gure guda aurreko lan guztiak, alperreko lanak izan dirala dirudi.

Berrogeitak urteko illuntasunak, min aundia egin dausku euskal izakera guztietan, bai, euskal nortasunean ta bai euskerari buruz, samingarria da gaurko joera, batez be gure agintarien griña bako arduragaitik.

Alde guztietatik daukaguz guk, euskaldun azi gintzanok oztopoak, ezker-eskuetara jausi da gaurko arazo guztia, gaur arte edo, obeto esanda EUSKALTZAINDIA'n Lekuona Jauna kendu ebenetik, gure izkuntzan eta izkuntz gaitako sari guztietan alegintzen dira «EUSKARA BATU» zaleak ipintzen.

Lotsagarri aundia izan da oraintsura arte igaro dana.

\* \* \*

## EPAI-MAIAK

Ondo dakigun lez, urtero egiten dira «POESIA» «LITERATURA» ta abarren sariketak.

Oraintsurarte epaimai-buru izaten ziran «EUSKARA BATU» zaleak, EUSKALTZAINDIA'k aukeratatakoak.

Jakiñekoa izaten zan ba «H»tarak irabazi bear ebela. EUSKE-

RAZAINNTZA koak, alperrik aurkeztuko eben lanik onena, ez egoan zer-egiñik, gaur, apurtxo bat aldatu nairik dabiltz epaimaimallan, ain lotsagarri egertu barik, EUSKERAZAINNTZA edo «H»zaleak ez diranai deitzen asi dira baiña, geienak edo nagusitasuna «H»zaleen aginduetan jarraitu nairik.

Alan edo olan, lengo lez gertzen da ta, epaimai onek benetako irudipen bat ez daukien bitartean, gu, «EUSKARA BATUA» ontzat artzen ez dogunok, gitxienez epailaritze bardiñean jartzen ez garan bitartian, orren otsein izan bear al gara?

\* \* \*

## GAURKO IDAZ-LANAK

Lotsagarri ta negargarriak dira gaurko aurkez-lanak, dana da zantarkeri usaiñekoa, biraoz beterikoa. «CUENTOS DE LA VILLA DE BILBAO»n aurkeztu eben lan bat, ez zan saritu baña, alan ta guztiz, Donosti'n aurkeztu zan eta, garaille urten eban, birauz beteriko ipuin bat da asi ta amaiera, dana da MECAGUEN gora ta MECAGUEN bera, Jaungoiko ta bere inguruko guztiak erretzen.

Auxe ba da gaurko gure «CULTURA MODERNA».

Zer jazoko da euskal urrutirudizkiñaz...

GORRI

# URTE SANTUA

Aita Santuak urte santu bat iragarri dausku, urte au ez bei utsean igaro baiña bai oso onuratsua izan daiten baiezkortasunagaz eta benetako adoreagaz artu bearrean gazoz.

Zertarako urte santuak? Batez be barriz alkartu ta alkar adiskidetu gaitez.

\* \* \*

Orretarakoxe Jaunak judatarrai agindu eutsoen idazteunean, eta gure elizak bere orretarakoxe ospatuten dauz urte santuak: Barriz alkartze ta adiskidetzearen bear aundian aurkitzen da ez bakarrik mundu guztia, bai ta geiago bear bada gure Euskalerra maitea.

Begira ondo gure erriari eta argi argi ikusiko dogu dana sakabana-tuta, bananduta: Sendiak bananduta, gurasoak seme alaben aurka eta seme alabak gurasoen aurka, edo oitura barriak dirala edo ta politika dala gurasoak bide batetik eta seme alabak beste bide batetik, alkartu-eziñean.

Ori sendientzat galgarri aundia da.

\* \* \*

Kristok ba-diño: Norberaren etxea norberaren etxearen aurka badago, etxe ori laster jausiko da.

Zenbatu ezindako beste dira gurean sakabanatuak, birrindu diran etxeak.

Askotan bardin jazotan da elizgizonen artean be, au lotsagarria, negargarria, baiña egi biribilla.

\* \* \*

Eta zer esan aspaldiko gizaldietan asita, Kristoren eliza ez-bardinañak dakarren banantzea eta burrukaren gañean?

Kristok esan eutsan Aita zerukoari: Aita, nigan siñistuten daben guztiak bat izan daitezela, Zu ta Ni bat garean lez, baiña kristau-elizak beti burrukan eta tiki mikietan oñarriturik, bananduta.

Eliza bat egon bear leukan tokolian milla eliza, alkar eziñean.

Kristo batean alkartu bearrean, milla Kristo agiri dira munduan.

Bat biurtu bearrean bata bestearen arerio biurtu gara.

\* \* \*

Politikaren aldetik munduari begiratu ezker, gorrotoa eta alkar ikusi-eziña aundiagoak dira ondiño.

Ezi bako umetxoak dirudie gizonak, beti umekerietan, munduaren kalte aundirako.

Bakoitzak zentzunagaz edo zentzun bagarik, norberenari eutsiten dautso.

Beste banandute asko ikusten doguz gaur egunean, orregaitik ederto iatorku urte santu barri bat.

Urte onetan, geure barruan, bakoitzak azterketa sakon bat egin bear dogu, bein betiko gorrotoa eta gogorkeria alde batera itxirik, alkar besarkada maitetsu bat emon dagiogun, biotzak batuaz bizia bigundu, sendiak alkartu, elizak batu, politikariak gizontasunera ekarri eta benetan mundu oba bat egin dagigun.

\* \* \*

Urte Santu au, beste izan diran urte santu askoren antzera, utsean eta putsean igaroko ete da?

Ez olakorik.

Geure eskuan dago urte onetan garaille urteteko.

Orretarako, lan eta otoi!!!

Ikusiko al da sortaldean eguzki barri bat, alkartasunaren eta bakearen eguzki dizdiratsua!!!

Parkatu, baiña lengo baten amesetan nengoala, zer ikusi naban: Jainkoak emon eustazala beso luze luze aundi bi, eta eurakaz besarkatu nebala mundu guztiko gizadia, eta besarkada orretan somatu neban gozotasun aundi bat, besarkatu nituan guztiak euren biotzetan taupada maitetsua eukelako.

Ez egoan garraztasunik, ez gorrotorik. Ames au baieztuko bali-tza urte santu onetan!!!

*Mediak ezin dira  
iñolaz alkartu;  
beti leku batean  
jaunak zitun sartu.  
Ibiltez ez dakie  
beti dira bertan  
dagoz gorantz begira  
josita lurrean.*

*Gizonak geure aldetik  
oñak baditugu  
eurakaz ibilirik  
bestekaz alkartu  
guazen ibil ta ibil  
bestearen billa  
danok besarkatuaz  
egin daigun pilla.*

ON KLAUDIOK

## Peru eta Marixe

# NATXE BARIK ESNERIK EZ

Lagun batek esan eustan ze, beia jeisteko eta esnea errapetik etarateko, sillatxua (h)bear zala.

Euskera be, bei aberats bat egiñik dagoala, arrape eta ugatz ederrak daukozala; baiña, sillatxurik(h) ez ba'dozu, ez deutzazula esnerik atarako...

Ori sinisten ez daben mozolorik bada zuen artean, ala?

\* \* \*

Ez nekien zer erantzun emon.

Orrei buruan bueltak emoten nabillela, Peru eta Marixe'ri zer gertatu jaken akorde nintzan.

Peru etxegintzan ibillia zan eta lur jota egoan krisis eta demoniñokeri onegaz.

Negozia aldatzea pentsatu eban.

Zer egin?

Basarriak utsik bastarretan eta basarri bat erostea etorri jakon burura. Peru bera be kale-basarri pobre bateko semia zan eta ez eukien etxian txarritxu bat eta lau oillo, besterik ezer be ez. Beirik sekulan ikusi be ez.

\* \* \*

Arazo barria zan, dirutxua aurreratuta be baeukan eta bei esnedunak imiñi nai izan ebazan. Marixe, konforme. Baiñan, esnia nolan jaitxi ez zekien ez bat eta ez besteak. Marixe'k esan eutson:

—Gizontxu, ikasteko izaten dira liburuak. Erosi egizu bat.

—Bai, andratxu, erosiko dot.

Erosi eben liburua nolan beiak jatxi ikasteko. Leningo beiari ondo jaten emoteko, esaten eban liburuak eta gero gerokoak.

Gerokuak zirean sillatxu bat eta baldetxu bat. Ontzi aunditxu bat. Erosi ebezan biok.

\* \* \*

Ondo jaten emon eta gero, esnea biar eben aparitarako. Ontzia eta sillatxua eskuetan ebazala, sartu da Peru kortan. Marixe eskaratzean sua bistan. Zai agoan esnea egosteko.

Bedar ugaria solöetan eta beia edertuta egoan: dindilizka errape eta ugatz bete-beteak... A zan edertasuna!

Peru kortan sartuta gero, beiaeren marruak eta txilixuek Gaztelugatxe'tik be entzungo zirian eta korta eukien Bermio'n.

Esnearen txirist-txirrist ez zan entzuten. Orren orde, demoniño guztien zaratia. Zer zan a...!

Azkenean, be, irten dau Peru'k kortatik sillatxua ezkerrean eta baldea eskuman.

—Nun dozu esnetxua? Galdetu eutson Marixe'k.

—Esnea? Orrek ez dauko esnerik. Agorra dago.

—Baiña, gizontxu, errapiak dindilizka daukoz lertuteko moduan-eta...!

—Ba, nik ezin dot esnerik atara. Begira egiozu ondo liburu orreri, nik azin dot beirik sillatxuan ezarri-ta...

—Perutxu, sillatxua zeure eperdiarentzeko da eta ez beie berton ezartzeko...

\* \* \*

Peru'k jakin ba eban gaurko sillatxuaren asmakizuna, atarako eutson esnea nai dan beste.

Ikusten dau Euskaleria'n sillatxua (h)bear dala esnea Euskerari atareteko be.

Euskera-beia ipiñi dabe ondo lotuta, perratzaileak ganadua lotzen eben antzera... An dago koitadua, ugalez ondo lotuta, barru-barruan... Ara sartzeko zeure sillatxua(h) bear dozu; bestela ez deutzazu Euskerari esnerik atarako.

Erriaren diruagaz gizendu dabe; alan be, sillatxurik erabiltzen ez dabenak, ez dau esnerik probeko, naiz eta, plako egoanean, bere diruagaz bizirik irauten alegindu...

Peru'k jakin dauanez, a ainbeste esne emoten dauan Eskara-beia ez ei da benetako Euskera, asmekizun bat baiño.

Bizkaiko-beia an ei dauken illun-illunean goserik ilten eta Peru'k etxeko atze-aldetik leiotsu bat topa dau eta andik emoten ei dautso belar preskua eta indiar-baba aundiak. Eskean ba asita ei dago, bei eder ori bizirik eukiteko...

\* \* \*

Nere zorionak Peru Bizkai'ri eta segi aurrera ekingintza orretan.

ARRANEGI'ko Anes



# DOKTORE BARRIAK

- Euskaldun bat iru aldiz doktore
- Euskaldun bat, —lenengo aldiz munduan—  
il-ondoren doktore.
- Biak, Paris'ko Sorbona'n!

Jai aundia izan zan 1983'ko Epail onen 22'a Paris'ko Sorbona izeneko Unibersitatean.

Egun ortan il zan Agirre'tar Yoseba Andoni Euzkadi'ko lenengo Lendakaria, eta Paris'en il zan ain zuzen.

Gogoan izan genduan Sorbona'ko antzoki bikain artan, bere lagun eta adiskide maite batek, Yon Oñatibia'tarrak, il da ondorean, Filologi edo Izkuntziziti-Doktore «summa cum Laude» tituloa artu zuanean.

\* \* \*

Yon izan bait da mundu guziko unibersitateetan ill-ondorean doktoradutza artu duan lenengo zientzi-gizona.

«Sorbona'ren edestian beintzat aurrenekoa da, eta Frantzi osoan ere bai, eta baita, agian, Europa guztian ere, eta ba'leike mundu guztian ere ala izatea» —esan zidan Sorbona'ko izkuntzalaririk ospetsuenetako batek, Barnard Pottier'ek—; «Arjel'ko Unibersitateak eman zuan doktoradu-gisako titulu bat, gudate artan ildako matematikalarik bateri, baiña tituloa berea, Oñatibia Jaunari eman diogu lendabiziko aldiz».

\* \* \*

Yon Oñatibia, Agirre'k izendatuta Yorke Berri'n Eusko Jaurlaritzaren Ordezkarik izan zan. Ai! Agirre maitea Epailaren 22 ontan Sorbona'ko Dortoratuen Gela eder artan egon ba'litz!

Oñatibia ez zan leenago ere yakintza baratzean arrotza.

Zaragoza'ko Unibersitatean Legiztitan lizentziatura irabazia zan, eta baita Yorke Berri'ko Laterri-Unibersitatearen «New York College of Music» deritzanean Eresisti edo Musikologian beste lizentziatura bat ere.

Oraingo ontan... jain bikaiña eta ederra eta garrantzitsua izan da Sorbona'ra aurkezturik zeukan tesis edo ikerketa-lana!..., ain «doktorea»!..., beartua ikusi du bere burua Sorbona'k; ildako bati, lenengo aldiz, dorktaradutza ematera beartua ikusi du!

\* \* \*

Titulo oiek jakiteak, irakurle, zearo erreztuko dizu, Oñatibia'tar Yon'ek izkuntzaren, eta irakaskintzaren, eta euskal dantzaren, eta euskal eresiarren arloetan egindako lan miresgarrien zergaitiaren ulerketa.

A! Oñatibia'tar Yon EUSKERAZAINTZA deritzan Erriaren Euskal Akademian Euskerazain Osoa zan.

Bizkaieraren maitale sutsua, «el batua»ren etsai beroa. Badu Bizkaiera erakusteko eta ikasteko metodo bat.

\* \* \*

Epailaren egun ontan, Paris'ko bigarren Euskaldun ospetsua Latxaga izan zan: San SEBASTIAN'dar Yoseba Mirena. (LA-

TXAGA, bera jaiio zan Donosti'ko baserriaren izena da. («Zan», obeto esateko; Donosti'ren azitzeak desegiñarazi bait zuan baserri zaarra).

LATXAGA ondo gizon ezaguna da yakintza-baratzen. Leendik bi Doktoradu zituana. Biak Sorbona'koak. Bata Teologia'n; bestea antropologia'n.

Irugarren au Filologia'n, Izkuntziztitan. «Oso gutxi izango dira, Sorbona'ren edesti osoan, emen, Sorbona'n, iru doktoradutza irabazi dituztena'k» —esan zidan izkuntzalarik ospetsu batek, Maurice MOLHO'k—. «Zearo berria da gaiñera Latxaga'ren ikerketa-lan au —jardun zuan esanaz—, Latxaga ertz berri batetik urbiltzen bait zaio Izkuntzari ikerketarako, eta berriak bait dira, 'iraultzalariak', Latxaga'k darabilzkian erak».

\* \* \*

A! LATXAGA ere, Euskerazaintza'ko Euskerazain Osoa da, Erri-Euskeraren maitalea, «el batua»ren etsaia.

Bir-irakurri ezazu «Euskaltzaindiari Epaiketa» izeneko liburua dala-ta, «Zer»en idatzi zuana.

Egun aundia Euzkadi'rentzat, orrelako bi gizon aundiok Euskotarrak diralako.

Egu aundia Euskerarentzat, bien lanak Euskera zutelako gai.

Eta egun aundia Euskerazaintzarentzat, biak Euskerazain Osoak diralako.

Gutxi izango dira munduan orrelako zientzi edo yakintza-gizonen biltoki diran Akademiak.

LATIEGI'tar Bixente

# ERREGEA ETA KANPAIAK

32.<sup>a</sup> ERANTZUNA

Erregea bai, Erregea ez, euskaldunak beti ibilli gara bai ta ez.

Bein baten Errioxa-aldeko erritxu batera ikustaldia egin eban Erregeak eta gertzakizunetan ebiltzala, abadearen eta udalkideen artean eztabada gogorra sortu zan: Erregea erri batera sartzen danean kanpairik jo bear dan ala ez. Abadeak ezetz, kanpaiak orretarako ez dirala... Udalkiddeak batzuk abadearen alde; beste batzuk, alkatea aurrengo zala, balletz, eleizakoak ez diran gauzetarako be joten ziralata, sua amatateko deia esaterako...

Erregea eldu zanean, sarrera aundi-girokoa izan eban, baiña abadeak kanpairik ez eban jo.

Alkate jaunak egin eutson berba eta onelantxe esan eutson:

– Errege Jauna! Konturatukoziñanlez, zure sarreran ez da kanpairik jo erri onetan, baiña esango dauztut ori zergaitik izan dan... Lenengo, erri onetan kanpairik ez daukagulako...

Erregeak berbaldia ebagiaz, esan autson:

–Naikoa! Naikoa! Beste errazoirik ez da bear.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1	G	E	I	E	G	I	K	E	R	I		I	Z	A	N
2	A		G		A							T	X	L	O
3	N		A		N		V	R	I	N	T	S	U		Z
4	G	A	R	A	G	A	R		T			U	R		E
5	A		O		A		U		A		B		B		A
6	R				R		N	U	N	A	I		E	U	N
7	K	E	Z	K	A	T	I		D		L	A	R		B
8	E		I				R		U		T		O		E
9	R		G	A	B	E	U	K	A	T	Z		A		I
10	I	D	O	R			D					A	R	G	I
11		A	R	G	I	B	I	D	E			R	X	A	
12	B			I	X	E	Z	E				G			O
13	I	E	S	X	I	Z	K	I	R	A		O	B	E	N
14	D			Z	A	T	I	T	U	X	I	R	A	X	D
15	E	T	A				U		U		A	L	A	I	T

Goñi

## “EUSKERAZALEAK” IPUIN-SARIKETEIA

EUSKERAZALEAK Taldeak, igaz lez, ipuin-sariketeia eratzen dau. Sariketa onetara sartzeko, oneik izango dira baldintzak:

- Euskera biziz idatziak izan bearko dabe. Erriak darabilen euskalkietariko bat erabilliaz idatziak.
- Ipuinen itzulpenak ez dira onartzen.
- Luzerea, iru orri-alde, bitarte bi lerroartean dituela.
- Epea: Orrillaren azkenerako gure lan-etxean (Colón de Larreategui, 14, 2.<sup>a</sup> eskoia) izan bearko dabe.
- Sariak: Iru sari izango dira: 1.<sup>a</sup> 30.000 pezeta; 2.<sup>a</sup> 25.000 pezeta eta 3.<sup>a</sup> 20.000 pezeta.
- Ipuin sarituen jabe “EUSKERAZALEAK” izango da eta ZER gure aldizkarian argitaratuko dira. Sari barik geratzen diranak, idazleen esku geratuko dira eta eurak billa etorri bearko dabe.
- Oitura dan lez, ipuiña izen-ordez bialdu eta izen-orde ori gaiñean daroan azal baten barruan sartu izen-ordea ta izena batera daroan txartela.
- Maikoen erabagia, uztaileko ZER'en agertuko da.

# EUSKERA GUREIZKUNTZA

*«Euzkotarrak bere abendaren izkeratzat euskerea ezpadau maitatzen... zergaitik eta zetarako maitatuko dau?» (Sabin)*

Gogoan izateko gogoeta batzuk:

- Ezbai barik Euzkadi'ko izkuntza euskerea izan da, da ta izango da... Ala na, ez dakien euzkotarrak ikasten alegindu bear leukie.
- Euskerea gatxa dala ikasteko esaten dabenak, bizitzeko bear ba'leukie, ziur egon, ikasiko leukiela.
- Sabin'ek txikitan ez ekian euskerarik, baiña anditan ondo ikasi eban... Gogo beroaz eta zaletasun bardiñagaz beste askok be ikasiko leukie.
- Atxakiak, ba, betiko lez ez daukie baliorik... Beste batzuk euskera ikasten ba'dabe... zuk zergaitik ez?
- Ingelesak, prantzesak naiz doixtarrak obeto dakiena euren izkuntza da... Baiña, zoritxarrez, euskaldun askok erdere euskerea baiño obeto dakie... Noz arte?
- Euskaldun askori esan ezker erdaldunak dirala asarratu egiten dira... Zergaitik, orduan, erderaz ain sarritan egiten dabe?
- Euskaldun erdaltzaleak erdaldunak baiño kalte geiago egiten dautsoe euskerari.
- Euskerazko berbaldi edo izketa bat, txarra izanda be, erderazko itzaldi onena baiño ohea da.
- Euskeraren alde erderaz idazten dauanak, erdere zabaltzen dau.
- Idazle orreik obeto emongo ba'leukie euskerea ikasten, euskeraren buruz erderaz idazten emoten daben denporea.
- Euskerea goratzeko ta indartzeko biderik onena euskerea ikastea, euskeraz irakurtea ta idaztea, ta euskeraz egitea da.
- Euskera zetarako? EUSKALDUNA izateko.  
Erdera zetarako? Erdalduna izateko.  
«El batua» zetarako? Bizkaiera ilteko.
- Euskera barik ez ba dago Euzkadi'rik, BIZKAIERA barik ez dago Bizkai'rik... Bizkaitarren euskerea BIZKAIERA da.
- Zer egin bizkaitarrok gure BIZKAIERAREN alde? Lenengo ta bein benetako bizkaitarrak izan... Bizkaieraz beti egin, bizkaieraz irakatsi seme-alabei ta al-diran alegiñak egin bizkaiera zabaltzeko ta bizkaiera indartzeko.


Au da gitxienez egin bear doguna gure zanetan bizkaitar odol-tanta bat ba'daukagu!

EUSKERAZALEAK

# ZER

Colón de Larreategui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

# Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA



BIZKAIKO  
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia